

## Garraio bertikalari buruzko konferentzia Mondragon Unibertsitatean

2012/05/09

Oronako langileek eman dituzten saio hauetan beste batzuen artean honako hauek parte hartu dute: Antonio Pérez, Inge Isasa, Mikel Urtxegi, Ritxar Aizpurua, Xabier Murua eta Oier Lizerazu. Hitzaldietan landutako gaiak tribologia, bibroakustika, energia eraginkortasuna eta igogailuetako eragingailuak izan dira.

Joan zen maiatzaren 2an Orona Taldeko Ritxar Aizpurua Energia eta Potentzia Elektronikako Masterreko ikasleei garraio bertikalari buruzko hitzaldia eskaini zien. Hau izan zen Oronak Taldeak Industria Ingeniaritzako eta Energia eta Potentzia Elektronikako Masterreko ikasleei eskaini zien azken saioan garraio bertikalari buruzko jardunaldiaren barruan.

Azken hitzaldi honek Ekodiseinua, eragingailuak eta igogailuetan energia biltegitratzea izenburukoak, hiru zati izan zituen:

1. Lehenengo zatian igogailuetako eragingailuen errebaso bat egin zen, lehenengo eragingailuetatik gaur egungoetara. Kabinaren desplazamendu bertikalerako eragingailuez eta ateak irekitzeko eragingailuez ere hitz egin zen.
2. Bigarren zatian igogailuetako Ekodiseinuaz hitz egin zen, igogailuen sailkapen energetikoaz eta VDI4707 arauaz, zeinak energia kontsumo motak definitzen dituen.
3. Azken zatia igogailuaren eraginkortasun energetikoa optimizatzeko berrikuntza eta I+G proiektutan zentratu zen. Energia elektrikoaren biltegitratzea lehentasunezko aukera gisa nabarmendu zen.



Garraio bertikalari buruzko konferentzia